

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BERGANZOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Behin betiko onespena ematea Berganzoko Kontzejuko lurzoruaren, trafikoaren eta zirkulazioaren, aparkalekuen eta bideen erabilera arautzen duen zerga ordenantzari

Kontzeju honek, 2019ko otsailaren 17ko bilkuran, hasierako onespena eman zion Berganzoko Kontzejuko lurzoruaren, trafikoaren eta zirkulazioaren, aparkalekuen eta bideen erabilera arautzen duen zerga ordenantza onesteko espedienteari. Jendaurrean egon den bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onetsita geratzen da. Beraz, 41/1989 Foru Arauaren 16.4 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako (41/1989 Foru Araua, Toki Ogasunak arautzen dituen), osorik ematen da argitara, indarrean sar dadin.

Berganzo, 2019ko urriaren 7a

Errejidore-lehendakaria

EMILIO MANUEL LÓPEZ GUTIÉRREZ

Berganzoko Kontzejuko lurzoruaren, trafikoaren eta zirkulazioaren, aparkalekuen eta bideen erabilera arautzen duen zerga ordenantza

ZIOEN ADIERAZPENA

Ordenantza honen xedea hau da: arautzea, administrazio batzarraren eskumena denez, espazio libreen erabilera (hauek jotzen dira espazio libretzat: plazak, haurren jolastokiak, oinezkoen kaleak eta, oro har, gehienbat aisialdirako erabili ohi diren gunek guztiak). Azken helburua da espazio horietan dauden elementu guztiak babestea (hala nola eserlekuak, zakarrontziak, haurrentzako jolasak, helduentzako jolasak eta egon daitezkeen gainerako hiri altzariak), gutxi batzuen jokia desegokiagatik hondatu ez daitezkeen eta herritar guztiek aukera izan dezaten eremu horiez gozatzeko.

XEDAPEN OROKORRAK

Kontzeju honek, Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen 41/1989 Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorritik, dagokion tasa ezartzen eta eskatzen du, Berganzoko Kontzejuko lurzoruaren, trafikoaren eta zirkulazioaren, kaleen, espalioen, aparkalekuen eta bideen nahiz bestelako eremuen erabilera arautzen duen zerga ordenantza honen arabera. Ordenantzaren aplikazio eremua kontzejuaren mugarte osoa izango da.

1. artikulua. Xedea

Berganzoko Kontzejuak kale, espaloi, aparkaleku eta espazio publikoen erabilera eta ibilgailuen zirkulazioa arautzen du, herriaren eta herritarren interesak babesteko, honako hauetan aurreikusitakoarekin bat etorritik: 7/1985 Legean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen; Tokiko korporazioen ondasunei buruzko Arautegian; otsailaren 13ko 6/1995 Foru Arauan, Arabako Lurralde Historikoko landa bideak erabili, artatu eta zaintzekoan; eta horiekin bat datozen gainerako lege xedapenetan.

2. artikulua. Aplikazio eremua

Ordenantza honako eremu hauetan aplikatuko da:

- a) Kontzeju honen eskumeneko kale, espaloi, aparkaleku eta bide guztietan.
- b) Kontzejuaren jabetzako bi lurzati hauetan: 848 lurzattia (zerbitzu kolektiboetarako erabiltzen da; adibidez, gasa biltegitzeko) eta 794 lurzattia (hondakinak biltzeko erabiltzen da: obra hondakinak, inausketa hondarrak, etab).
- c) Zabor edukiontzia eta konpostajerako edukiontzia dauden lekuan.

3. artikulua. Abiadura, aparkatzea eta eskumenak

Abiadura: kale eta bideetan, ibilgailuak gehienez ere orduko 20 kilometroko abiaduran ibili daitezke.

Aparkatzea: aparkatzea da ibilgailua ibilgetzea, geratzen edo gelditzen harago.

Gidaria izango da gai horiei buruz ezarritakoak urratzearen erantzule.

Debekatuta dago kasu hauetan ibilgailuak aparkatzea:

- a) Seinaleek, bertikalek zein horizontalek, debekatzen duten lekuetan.
- b) Bigarren ilaran.
- c) Higiezin batera oinez sartzea erabat edo apur bat eragozten denean.
- d) Bide publikoaren gainerako erabiltzaileei trafiko seinaleak ikustea eragozten zaienean.
- e) Gainerako gidariei edo oinezkoiei arriskua sortzen zaienean.
- f) Bihurguneetan.
- g) Debekatuta dago kaleetan edo bideetan aparkatzea, baldin eta autoaren eta bidearen beste aldeko ertzaren artean 4 metrotik gorako tarte librerik geratzen ez bada bertatik igarotzeko.
- h) Administrazio Batzarrak, kontzejuaren erabaki bidez, aparkatzeko debekua duten zonak aldatu edo handitu ditzake.

Eskumenen araubidea: kontzeju honetako administrazio batzarrari dagozkio eginkizun teknikoak eta zaintzeko eginkizuna.

Eginkizun teknikoen barruan egongo da bideen plangintzarako, proiektuak egiteko, eraikitzeko, aldatzeko eta onik zaintzeko edo bideak konpontzeko arau teknikoak onartzea.

Zaintzari dagokionez, egiten diren arau hausteen salaketak egingo ditu eta, horretarako, arau hausleak identifikatuko ditu, ahal izanez gero. Arau hausteari buruzko datuak ere hartuko ditu, eta agiri grafikoak edo argazkiak ere aurkeztuko ditu. Salaketa hori egitean bi lekuko aurkeztuko dira eta, behar izanez gero, ertzaina egongo da bertan. Salaketa horiek egiazkotzat joko direnez, alderdi arau hauslearen ardura da kontrakoa frogatzea.

Arau hausterik egiten den zaintzeari eta salatzeari dagokionez, aurreko paragrafoan xedatutakoak ez du kenduko kontzejuak edo beste herri administrazio batzuek ere horretan duten eskumena izatea. Horrez gain, edozein erabiltzailek ere arau hausteak salatze eskubidea izango du.

4. artikulua. Erabiltzeko baimenak

Lurzoru publikoari erabilera pribatua eman ahal izateko (adibidez, materialen bat jartzeko), baimena eskatu beharko da; zergatia azaldu behar da eskaeran, eta eremu hori zenbat denborarako erabili nahi den zehaztu.

Administrazio batzarrak baimena eman arte ezin izango da espazio hori erabiltzen hasi edo bertan aprobetxamendurik egin.

5. artikulua. Betebeharrak

Lurzoru publikoan

Espazio publikoen erabiltzaileek arduraz erabili beharko dituzte eremu horiek dagokion jarduera egiten duten bitartean, eta behar diren konponketak eta garbiketa lanak egingo dituzte jarduera amaitzean. Horrela ez bada, lan horiek kontzejuak egin ahal izango ditu erabiltzaileen kontura.

Hiri altzarietan edo aipatutako leku publikoetako beste edozer gauzatan kalterik eraginez gero, kaltea egin duenak nahitaez ordaindu beharko du; hau da, hondatutako ondasunen baliorearen pareko kalte-ordaina eman beharko dio administrazio batzarrari.

Kalte-ordain hori eskatuko da ez bakarrik norberaren egintzengatik, baizik eta norberaren ardurapean dauden pertsonen egintzengatik, Kode Zibilaren 1903. artikuluan eta hurrengoetan dioena betetzeko.

Baimena jaso duten eta interes orokorrekoak diren jendaurreko ekitaldien ondorioz eragiten badira kalteak, baimena eskatu dutenek erantzun beharko dute, edo, erakunderen baten izenean eskatu badute, erakundeak.

Etxeko abereekin

Txakurrak pertsona batekin joango dira beti; ez diote jendeari enbarazurik egingo, eta ezingo dira eraman haurren jolastokietara.

Txakurrekin doazenek jaso beharko dituzte haien gorotzak, eta zakarrontzira bota beharko dituzte. Nolanahi ere, txakurrek ezin dute pixarik edo kakarik egin jendea dabilen lekuetan eta, batez ere, haurrak jolasean ibiltzen diren tokietan.

Ingurumenarekin

Lasaitasuna eta segurtasuna bermatze aldera, ez dira baimenduko jarduera hauek:

1. Jolasak eta kirolak, ondorengoren bat gertatzeko aukera badago:

- Pertsonen oztupoak edo istripuak eragin.
- Jarlekuak eta hiri altzarietako gainerako elementuak kaltetu edo narriatu.
- Pertsonak igarotzea galarazi edo zaildu edo zirkulazioa eten.
- Lasaitasun publikoa nahastu edo eragozpenak jarri.

2. Modelismoko edozein gailu erabili (hegazkinak, droneak, etab.). Gailu horiek horretarako berariaz prestatutako guneetan baino ezingo dira erabili.

3. Bide publikoan ibilgailuak garbitu.

4. Edozein motatako obrak egin, dagokion udal baimenik eta administrazio batzarraren baimenik gabe.

5. Zaborra edo papera lurrera bota, zakarrontzietara bota beharrean.

Hiri altzariekin

Kontzejuko hiri altzariak, hau da, jarlekuak, zakarrontziak, jolasak, iturriak, kaleko argiak eta seinaleak, errespetatu egin behar dira eta erabili ondoren behar bezala zaindu eta erabiltzeko moduan utzi behar dira, narriadurarik gabe. Beraz, jarraian adierazitakoa kontuan hartu beharko da:

a) Jarlekuak behar bezala erabili behar dira, eta, oro har, erabilera kaltetzeko edo narriatzeko erabilerarik ez da egin behar.

b) Helduek ezin dituzte haur jolasak erabili, eta ezta ere jolas horietan aritzeko gehieneko adina gainditzen duten hurrek.

c) Jolasak ezin dira erabili beste erabiltzaileak arriskuan jartzeko moduan.

d) Jolasak ezin dira erabili haiek kaltetzeko, narriatzeko edo hondatzeko moduan.

e) Zakarrentziak ezin dira manipulatu, hala nola mugitu, irauli, hondatu edo errotik atera.

6. artikulua. Arau haustek

Administrazio batzarreko kideek arretaz zainduko dute ordenantza honetan ezarritakoa, eta salaketak jarriko dituzte ordenantzaren arauak urratzen dituztenen aurka.

Jarduerengatik eta aprobetxamenduengatik dagokion zerga ordenantzan jasotako tasa ordaindu beharko da.

Ordenantza honetan ezarritako arauen bat urratzen duena erantzule izango da administrazioaren aurrean. Arau haustek honela sailkatuko dira:

1. Arau hauste arinak:

- Lehenbizikoz ez betetzea ordenantza honen hirugarren, laugarren eta bosgarren artikuluetan xedatutakoa.

- Baimendutako jarduerarako emandako baimenean azaltzen den aginduren bat ez betetzea.

- Baimenaren erabilera aldatzea, erabilera aldatzeko baimenik eduki gabe.

2. Arau hauste larriak:

- Aurreko puntuan adierazitako arau hauste arinak behin baino gehiagotan egitea.

7. artikulua. Zehapen araubidea eta kalte ordainak

1. Arau hauste guztietan dagokien espedientea irekiko da.

2. Ordenantza honetan aurreikusitako arau haustek eginez gero, zehapen hauek ezarriko dira:

a) Arau hauste arinak direnean, arau hausleak bere gain hartu beharko ditu arau haustek eragindako gastuak.

b) Arau hauste larriak direnean, kalte-ordaina ordaintzeaz gain, 100 euroko isuna ordaindu beharko du arau hausleak. Zehapenak ezartzeko, otsailaren 20ko 2/1998 Legean, EAEko herri administrazioen zigortzeko ahalmenarenean, eta zehapen prozedurei buruzko legedi orokorrean ezarritakoaren arabera izapidetu beharko da zehapen prozedura.

8. artikulua. Azken xedapena

Ordenantza honi 2019ko otsailaren 17ko bilkuran eman zitzaion hasierako onespena, eta jendaurrean egon den bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez denez, behin betiko onetsita geratu da; indarrean sartuko da ALHAOn osorik argitaratu eta hurrengo egunean, eta hala egongo da aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.